ERREPORTAJEA MUFOMI, FOSIL ETA MINERALEN MUSEOA · GEHIGARRIA KILIBARREN
KIROLA KENCI ELGOIBAR ARETO FUTBOL TALDEAK MAILA GALDU DU

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko maiatzaren 30a/XI. urtea/447. zkia



MUFOMI, FOSIL ETA MINERALEN MUSEOA

# Museorik ezezagunena

Goi-mailako Lanbide Heziketako **B.** Institutua

Miguel ALTUNA

AENOR

Oruruda. enpresa

ER 0521 1,2/98

IQNet

# 2003/2004 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINTZA

**GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**

Administrazioa eta finantzak
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
(0' Mekanizazio bidezko produkzioa
Proiektu mekanikoen garapen
Plastiko eta kautxugintza

**ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**

Mekanizazioa (goizez eta gauez)
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
Administraritza kudeaketa

74«,-"-e-#rat'"'fida ąbea 74874///t
etal:ra"evt'";€ tb-a.
Mat5-tieezia e"a.. &IetZ fira~ 30t/;e aztaiVai-e,/r it"a .

Lan munduko sarrera azkenengo urteetan % 90tik gora.

(07 Praktikak enpresetan eta atzerrian.

Harreman estuak inguruko entrepresekin.

teknologia aurreratua.

Eskola publikoa:
integratzailea eta anitza

Ibargarai 1. • Bergara •
Tel. 943 76 24 91 / 943 76 38 40 Faxa: 943 76 38 41
e-posta: imaltuna@sarenet.es
Web: www Imaltuna com
Bulego orduak 9 00etatik 14:00etara

go994/a9a. Wilaŧaza N ATE **IREKIAK** N kava
airafcc Al'atzai 29, aivf-atsaidelo 6etait

# Arragueta nd eg a

Galiziako dietan olagarroa itsasoak ematen du,
ardoa lurrak eta ogia...

Galiziako ogia Arraguetak ematen dizu!

Ekainak 6, 7 eta 8
Galiziako Eguna Euskadin
Galiziako ogia Elgoibarren



Arragueta okindeg'a, g
betiko ogia, gaurko o ia.

San Bartolome 6 Bernardo Ezenarro 1

# 40 URTE 40 ISTORIO

E; ELGOIBARKO IZARRA



## 19 Tanborradak eta Karrozak

1973an bueltan, *Javentud Elgoibarresa* elizako gazte taldearen baitan zegoen euskara taldea ibili zen Elgoibarren danborrada berreskuratzeko ahaleginean. Baina bizpahiru urtera taldea desagertu egin zen, eta 76an Elgoibarko Izarrak hartu zuen danborrada antolatzeko ardura. Elgolbarko Izarrak hartu zuen ardura, baina Antton Bergarak esan digun moduan, "herriko elkarteekin batera antolatzea zan gure nahia".

Sebas Larrañagaren esanetan, "lehen urtian danborrada klasikoa atera gendun": Erregina poxpolin jantzita, damak baserritar jantzita eta kantinerak. Baina hau lehen urtean bakarrik izan zen. Bigarren urtetik aurrera karrozetako giroa aldatzen ahalegindu ziren Elgoibarko Izarrakoak. Euskal Herriko giro diferenteak erakusten saiatzen ziren (baserria, itsasoa, ...). Ondoren, hirugarren etapa ezagutu zuen Elkartearen danborradak. Etapa erreibindikatiboa deitu diezaiokeguna. Etapa honetan herriko gai diferenteak azaleratu zituzten: euskararen zapalkuntza komunikabideetan, herrian antolatzen ziren hitzaldietarako jendeak zuen pasotismoa, *King-Kong* etxeagatik egindako protesta, etabar.

Baina, denborarekin, hasierako indarrak makaltzen joan ziren. Karrozak egiteak lan handia ematen zuen eta jendea nekatzen hasi zen. Hau ikusita, Elgoibarko Izarrak laguntza eskatu zion Konporta elkarteari. Konportak danborrada antolatzeaz arduratuko zen bitartean, Elgoibarko Izarrak karrozaren erantzukizuna hartuko zuen bere gain. Eta hala jardun zuten bizpahiru urtez.

10 urteko jardunaren ostean, 1986an isildu ziren Elgoibarko Izarraren danbor hotsak,

*Sebas Larrañaga, Antton Bergara eta Imanol Larrañaga*

# iritzial



## Hauteskundeak eta gero...salda bero!

Ni alkatesa banintz...maiatzaren 25ean elgoibartarrek bozkatu zutena errespetatuko nuke.

Zinegotzi banintz...niri ez dagokidan eserlekua hartzeak lotsa emango zidan.

...benetako demokrazian sinistuko banu, herriaren borondatea sakratua izango litzateke niretzat.

...abertzalea banintz, atzerriko legeek anai arrebei kendutako eskubideei aurre egingo nieke.

Ez da bidezkoa kanpoko gobernu batek ezarritako baldintzen atzean babestea, Einbiou plataformari dagozkion zinegotziekin gelditzeko: Espainiar epaileek plataforma legez kanpokoa dela diote? Eta guri, zer? Ez al dio Elgoibarko herriak hiru zinegotzi izateko adina boto eman? Ez al da demokrazia, herriaren boterea aldarrikatzen duen legea? Oinezkoengandik eratorria datorrena? Kanpotik etorriko da etxetik botako zaituena...dio esaera zaharrak, eta horrela izango da, etxekoek laguntzen badiote behintzat.

Bideak, moduak eta zilegizko konponbideak bilatu behar dira herriari berea dena emateko: ez etorri orain, gehiengo absolutuak PPri eman dion handikeria berdinarekin: jokamolde hori eta ondorioztatu duen mina aski ezagunak dira guretzat. Einbiouk jasotako botoek argi adierazten dute, elgoibartarrak ausardiaz jokatzeko prest daudela, eta eragozpen guztien gainetik euskaldunon batasuna gauzatuko duen politika babesteko prest daudela. Hori da, beraz, herriak zuengandik espero duena: ausardia! Eman herritarrei berea dena.

Zer egingo du PNV/EA koalizioak orain?

Lorea Perez de Albeniz


Kexak ..5

MOtZ MOtZ ........ 8

gehigarria ........ 13

kiRolAk ........ 20

aGenda ........

# eskutitzak

2003-V-30

## MILA ESKER DENOI!

Elgoibarko EGUNKARIAREN ALDEKO BATZORDEAk eskerrak eman nahi dizkizue maiatzaren 24an ospatu genuen *Egunkariaren Aldeko Egunean* lagundu eta parte hartu zenuten guztioi. Eguraldiarekin duda batzuk izan bagenituen ere, azkenean primeran irten zen dena, eta hau, neurri handi batean, zuei esker izan zen. Hurrengo batean ere ez dugu zalantzarik izango zuena jotzeko. Mila esker, bene-benetan.

Eskerrak: Gaztetxeari eta Intsumiso Taldeari; Udalari eta Debemen Elkarteari; Baltasar Elkarteari eta Ikastolari; Atxutxiamaika Aisialdi Taldeari, bertsolariei eta Baltzola anaiei; Arima Beltza, Lur Gor, K104 eta Handik eta Hemendik musika taldeei; Ametsa, Usua, Iturri, Jai-Alai, Oraiko, Iratxo, Kaia, Malape eta Lanbroa tabernei; Sahatzu harategiko Joni eta Beristaineko edari banatzailea den Jokini; eta, azkenik, taloak egiten, bazkaria zerbitzen eta txosnan lanean jardun zenutenoi.

Eta, nola ez, mila esker Egunkariaren Jaian parte hartu zenuten herritar guztioi. Bai eguerdi partean Plazan izan zen talo janean, bai bazkari herrikoian (168 lagun) eta baita iluntzeko kontzertuetan ere, jende asko eta asko ibili zen, eta honek aurrera egiteko indarra eman digu.

Eta ez ahaztu ekainaren bigarren hamabostaldian egunkari berria izango dugula euskaldunok. Eta Euskaldunon Egunkaria hobetzea zaila izango bada ere, zure laguntzarekin lortuko dugu!

Elgoibarko Egunkariaren Aldeko Batzordea

## PLAZA NAGUSIA M-40-A Bis

Aurreko urtean, garai honetan gutxi gorabehera, antzerako edukia zuen idatzi bat plazaratu nuen astekari honetan eta gaur da eguna, urtebete pasata erantzunik ez dudala jaso.

Egia esan, erantzun ezak ez nau kezkatzen, benetan kezkatzen nauena zera da, orain arte gauzak ezer gutxi aldatu direla eta "inork" ( Udaletik ) ez duela arazoa konpontzeko neurririk hartu, larunbatero plaza nagusia, ezkontzak direla eta, autobusez betetzen denean, gure seme-alabak han direlarik.

EZ DUT ULERTZEN.

Ez al dagd inor udaletxean ordu horietan hau guzti ikusteko? Eta dagokionari azaltzeko?

Tristeena zera da, egun guztian zehar, plaza nagusia umez josia dagoela, badirudi istripu bat izan behar dugula gauza horiek kontutan izateko, eta debekatuta dagoen zentzuan autobusak sartzen ez uzteko. ( Debekatuta baitago).

Benetan diot, tragedia bat behar da, legez debekaturik dagoena, kontrolpean izateko?

Elgoibarren badira espazio egokituak, jendeak autobusa hartu edo eta autobusak jendea uzteko, beraz utzi gure seme-alabek lasai jardun dezaten.

Ernesto Ecenarro [so
15374762-K

## EINBIOU-K ELGOIBARKO HERRIARI

Elgoibarko herri plataformaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu guregan konfiantza jarri duzuen guztioi. Hauteskunde ez-demokratiko hauetan izan ditugun baldintza gogorrak kontuan hartuz —jazarpen poliziala, gure ideien baztertzea eta ezkutuka ibili beharra-, Elgoibarko bigarren indarra izaten jarraitzeak, ia 1000 botorekin, guri indarra ematen digu, hemendik aurrera ere zuen nahiaren babesean lan egiteko.

Eta gainera, orain hasiko dira komeriak! Beraien burua demokratatzat dutenek (joan zen astean Ibarretxek zioen demokrazia herriari hitza ematea dela), gure ordezkaritza ez badute babesten, nola mantendu demokratak direla?

Iruzurra onartu, irentsi eta udaletxe berria osatzen dutenean, nola justifikatuko dute guri dagozkigun 3 ordezkari LAPURTUKO dizkigutela? Nor jarriko da, eta zeren izenean, guri dagozkigun aulkietan? Lotsarik izango dute aurpegira begiratzeko, gure kontura beraien ordezkaritza gehiegizkoa eta ustela baldin bada?

Einbiou plataformatik bozkatu gaituzuen guztioi esan nahi dizuegu, ziur egon zaiteztela, alde batetik, bozka hori ez dela alferrik izango, jarraituko dugula Elgoibarko herritarren nahiak, irizpideak eta proiektuak kaletik udaletxera eramaten, jarraituko dugula udaletxe demokratiko baten alde borrokan, eta bestetik, datozen asteetan Elgoibarren aterako den korporazioa ez dugula legitimatuko, ez dugula onartuko, ahalik eta beste hauteskunde demokratiko garbi batzuk egin arte. Bakoitzak ikusiko du zein jokabide hartu behar duen herriaren aurrean. Gurea garbi dago. Eta maioria izateak ez du arrazoia ematen, jokabide ez demokratikoa bada, gainera.

Iñaki Odriozola Sustaeta
(herriak hautatutako Einbiou-ko 1. ordezkaria)


ASTE KARIA

**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
Tt 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILIA
Elgoibarko Izarra

LAGUNT7ALEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN AROURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione UnallUe GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone OSOM, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Madinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Effp
EIGOIBARK0 IZARRA
AULT U LIFAMAA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

1111 kutxa
suri esker

1DANOBAT
1.0111.5 XEFIRALIIFNTP.

GOITI
GRUPO DANOBAT

EITARTA

## TXALOAK

• Herritar batek, Azkarateko errepide zaharretik Albitxuri industrigunera doan bidea konpontzeko asmorik dagoen galdetu digu: Udaletxeko hirigintzako departamentuarekin hitz egin dugu, eta momentuz ez dagoela ezer ere aurreikusita esan digute. Hala ere, ekainaren 14tik aurrera, zinegotzi berriak hasiko omen dira lanean, eta beraiek agian, izango omen dute bide hori konpontzeko asmoren bat beraien esanetan.



• Ikasle batzuk ondorengo galdera luzatu digute: Ekainetik aurrera, hau da, ikasle gehienek oporrak hartzen dituzten egunetik aurrera, zein ordutegi izango du Udal Liburutegiak? Garai horretan jende askok azterketak izaten ditu, eta ikasteko leku baten beharra izaten dute. Ekainean urte osoan zehar izan dugun ordutegia mantenduko dugu, Uztailean goizez bakarrik irekiko dute, 8:00etatik eguerdiko 14:00etara, eta abuztuan itxita egongo da.




♦ Herriko gazte koadrila batek Egunkariaren Aldeko Batzordea txalotu nahi du, joan zen larunbatean, maiatzaren 24an egin zuten lanarengatik: "Sekulako giro polita izan zen Elgoibarko kaleetan joan zen larunbatean, eta antolatzaileek txalo zaparrada handi bat merezi dute. Oso garrantzitsua da Batzorde honek Egunkariaren alde egin duen lana. Bide batez, herritarrak ere txalotu nahi ditugu, erakutsi zuten sentsibilizazio eta erantzunagatik".

* Emakume batek Elgoibarko Musika Bandako kideak txalotu nahi ditu: " Joan zen igandeko kontzertua zoragarria izan zen. Beti bezala txalotu genituen gogoz, baina oraingoak txaloak baino gehiago merezi zuten. Guk ez dakigu *bravo* esaten, ez da gurea, ez al dago euskaraz oihu edo garraxi bereziren bat, honelako kasuetan egiteko? Zorionak Bandako guztiei, banaka jotzen dutenei, baita zuzendariari eta Txomini ere, egin duen martxa berriagatik".

Barrak, Birrak eta Barreak



# FOSIL .4,rnry24Rar-.T, a.

*Elgoibarren dugun museorik ezezagunena da Mufomi (Fosil eta Mineral Museoa). Artetxe auzoan, Muguruzako eskolaurreko lehengo eskoletan kokaluta dago duela 10 urtetik, baina ziur askok ez duzuela paleontologia museo honen berri entzun ere egin. Txema Tobajas eta Javi Vargas dira museoaren arduradunak eta azken bi urteetan lan handia egin ostean, erabat eraberritu dute.*

Kanpokaldetik ez dago museo batean sartzera goazela adierazten digun inongo "aztarnarik". Muguruzako eskolaurreko eskolak apenas aldatu diren bertan eskolak ematen ziren garaitik. Atea zeharkatzean, ordea, oso bestelakoa da sentsazioa. Bitrinaz josiriko bi gela luze eta argitsuk pizten dute bisitariaren atentzioa, eta nola ez mahai gainean dagoen mamut buruhezur ikaragarriak, letagin zuri eta guzti. Honen ondoan aintzinako kokrodilo baten eskeletoa ageri da oso-osorik. Gela ilun batean Uva izpiekin disdiratsu bihurtzen diren mineralak daude. Harridura eta ezustea izan daitezke bisitariaren lehen inpresioak. Noiztik ote dago hau hemen?

Javi Vargas, Mufomiko presidenteak, argitu digunez, berez ez da museo bat, kultur elkarte bat baizik, "museo izendapena izateko baldintza eta ezaugarri asko eskatzen dituzte administraziotik. Dena dela, praktikan museo bat modukoa da". Txema Tobajas presidenteordeak aitortu digunez Javik azken 2 urteotan museoa eraberritzen egin duen lana ikaragarria izan da, "urtebetean 10 urtetako lana egin du. Berrikuntza nagusia duela bi urte gela bakarra genuela izan da. Udalari lekua eskatu eta Errotatxok alboan zuen gela laga ostean, museorako egokitu genuen. Orain leku gehiago dugu eta bitrinekin museo itxura gehiago hartu du. Hala ere, beste gela bat lortu nahi dugu. Bertan, laborategiaz aparte Euskal Herriko fosil eta mineralekin bakarrik osatutako erakusketa egitea da gure asmoa. Hori da museoaren erronka etorkizunerako. Asmo hau betetzeko beharrezkoa da kasu gehiago egin diezaguten. Ez ekonomi aldetik baizik eta zerbait eskatzen dugunean agintariek ez ditzatela urteak pasa erantzun bat eman aurretik. Posible den edo ez esan eta kittto!".



Euskal Herrian Kretazeo



*Museoaren ordutegia, astelehenetik ostiralera: 18:30-20:00.*
*Jai egunetan: 11:00-14:00.*

garaiko fosilak aurki daitezke batik bat, eta baita jurasiko garaikoak ere. Paleontologiaren ikuspegi orokorra izateko garai geologiko guztiak ordezkatu nahi zituztenez, mundu guztiko fosil eta mineralak lortu eta erakustea erabaki zuten.

## FOSIL SALTZAILE PROFESIONALAK

Museoan dauden fosil eta mineralen %50a erosiak dira eta gainontzeko %50a meategi, harrobi edo kobazulotan batutakoak. "Fosil saltzaile profesionalak daude eta merkatu zabala dago. Saltzaile espainiar batzuek aspalditik ezagutzen ditugu, oso harreman ona daukagu eta museo garrantzitsu bati baino lehenago ere eskaini izan dizkigute zenbait pieza". Txemak azaldu digunez kalitatezko piezen aldeko apostua egin dute. Javik gaineratu digunez, gero eta garestiagoa da fosilen merkatua, "Duela 5 urtetik hona gai hauen inguruko legediak guztiz aldatu dira. Gaur egun muga asko daude edozein tokitan fosilak bilatzen ibiltzeko, legedia oso zorrotza baita. Dena babesteko joera nagusitu da, zentzu praktiko, didaktiko edo inolako zentzurik ez baldin badu ere. Beste irtenbiderik ezean erostera behartuak gaude. Honek merkatu bat sortzen du eta prezioak gero eta altuagoak dira. Bestalde, ikerketa baten arabera, desagertutako animalien aztarna eta fosilen aurkikuntza gehienak afizionatuek egin dituzte".

rE IQ(Ina
J.113,41.21'.1u



## BISITARIAK

Euskal Herrian antzerako museo gutxi daudela argitu digute, "fosil eta mineralei dagokienez, gurea moduko ezaugarriekin ez dago besterik guk dakigula. Euskadiko Natur Zientzien museoan bakarrik aurki daitezke gureen antzerako piezak eta Madrileko Natur Zientzien museoan ere zailak dira topatzen hemen dauzkagun gauza batzuk". Museoko bisitariak ikastetxeetako ikasleak dira gehienbat, baina profesional taldeak, fosil eta mineraletan adituak, alegia, joan ohi dira. "Hemen pieza oso onak aurkituko dituztela baitakite. Ikastetxeetatik, berriz, leku guztietako jendea egon da, baina herrikoak bertakoak izan dira gutxien etorri direnak. Egia esan ez dakit zergatik ez den jende gehiago etortzen".

## PALEONTOLOGIAREN GARRANTZIA

Fosil eta mineralek gauza asko erakuts diezagukete, "duela milioika urte nolakoa zen bizitza azaltzeaz gain, paleontologiak lurra izaki bizidun bat dela erakusten digu: plaka tektonikoak mugimenduan daude, sumendiak... eta gizakiak eragiten dizkion kalteen aurrean defendatu egiten da. Gainera, paleontologo ezagun batek esan zuen moduan oraina ezagutzeko, iragana ezagutu behar da eta oraina eta iragana ezagutzen badira etorkizuna aurreikusi daiteke".

Paleontologia da Txema Tobajasen eta Javi Vargasen afizioa eta pasioa. Gauza interesgarri asko dakizkite eta entzuteko prest dagoen edonori kontatzeko prest daude: Nolakoak ziren duela 2.000 milioi urteko animaliak?, zergatik desagertu ziren dinosauroak?, gizakiaren eboluzioa, nola sailkatzen diren fosil eta mineralak, etab luze bat. Harribitxi eta fosil ugari dago Mufomi museoan, baina museoa bera da hanibitxirik handiena Elgoibar moduko herri batentzat.



## LABUR LABUR

**Noiztik dago museoa Elgoibarren?**
93an inauguratu zen Elgoibarren, aurrez Mendaron egon zen.

**Zenbat fosil eta mineralekin hasi zineten?**
500 piezarekin, denak Euskal Herrian topatutakoak.

**Gaur egungo pieza kopurua?**
4.000 fosil eta 1.000 mineral erakusgai, beste horrenbeste gordeta.

**Fosil eta mineralen jatorria?**
Fosilen %99a uretako fosilak dira.

**Non aurkituak izan dira?**
Bost kontinenteetan aurkitutako fosil eta mineralak daude, baita Antartikakoak ere.

**Fosil edo mineral kuttunena?**
Mamut buruhezurra oso interesgarria da. Siberian aurkitu zuten eta eme gazte batena izan zen. "Amonites" eta ornodunen kolekzioak ere oso onak dira.

**Fosilik zaharrena?**
"Stormatolitos" izeneko alga batzuen fosilak dira zaharrenak. 2.100 milioi urte dituzte guk dauzkagun zaharrenek, baina 3.600 milioi urte dituzte aurkitu diren zaharrenek. Animalia zelula bakarrak dira eta fotosintetikoak ziren, hau da, atmosferako anhidrido karbonikoa hartu eta oxigenoa sortzen zuten.



# Elgoibarko Udalbatzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu du

## Gizarteko arlo gehienak kontuan hartzen dituen normalizazio plana egin dute

Maiatzaren 20ko Udal Plenoan onartu zuten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Euskara normalizatzeko ezinbesteko tresna izango da gizarteko arlo guztietan, bere baitan erabakiko baitira herritarrek euskaraz bizitzeko aukera izan dezaten hartu beharreko neurriak. Lehenago ere, burutu izan dira honelako planak, baina oraingoan, gizarteko arlo guztiak kontuan hartzen dituen plana egin nahi izan dute.

Hiru urteko iraupena izango du (2003-2006), eta hiru ataletan banatuko da: Euskalgintzan berebiziko garrantzia duten esparruen diagnosi orokorra; datozen hiru urteotan euskararen normalkuntza lortzeko bideratutako helburuak, esparruak, neurriak eta ekintzak jasotzen dituen plan estrategikoa; eta plan estrategiko hori gestionatuko duen kudeaketa plana.

**Euskararen Aholku Batzordea**

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Udalarena ez ezik, gizarte osoarena ere izango da, eta plan hau garatzeko ezinbestekoak dira Udalaren konpromisoa eta gizartearen partaidetza eta lankidetza. Horretarako, Euskararen Aholku Batzordea sortu zen Elgoibarren, martxoaren 19an. Batzordeak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egokitzen lagunduko dio Udalari, eta urtez urteko jarraipena egingo dio.



Batzordea esparru desberdinetako 17 elgoibartarrez osatuta dago. Orokorrean, gure herrian euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusia duten gaiak aztertuko ditu.

**Istiluak plenoan**

Plenoaren hasieran Espainiako banderaren koloreak zituen zinta batez estali zuten ahoa Batasunako zinegotziek, eta "Euskal Herria Ilegala" jartzen zuen kartel bat altxatuta mantendu zituzten eskuak Pleno guztian zehar. Gai ordenako azken puntura iritsi zirenean, Asier Zengotitak ahoko zinta kendu zuen, joan zen azaroaren 22an Plaza Handian izandako istiluen kontrako mozioa defendatzeko. Presoen eskubideak, eta egun hartan atxilotu zituztenekiko solidaritatea eskatu zioten Udalari. Jose Maria Oruesagasti alkateak, mozioaren kontrako botoa emango zutela adierazi zuen, eta Batasunako zinegotzien protesta artean, bukatutzat eman zuen Plenoa.

# Mendaroko ospitalean amaitu zuen "Tattik" bere agurrean



*Toreatzaila planta erakutsi zuen "Tattik".*

Suerteak bizkarra eman zion Jose Luis Arana "Tatti" toreatzaileari bere azken zezenketa izan behar zuenean. Traje urdin koloretsuarekin atera zen Xixilion kaleko zezen plazara, baina Sakako zezenak ondar gainean 15 minutu bakarrik zeramatzanean, hesia saltatzen hasi eta ukalondoan min hartu zuen "Tattik". Gurutze Gorriak Mendaroko Ospitalera eraman zuen. Ordura arte lortua zuen jendea zutik jartzea, toreatzeko daukan modu bitxiagatik, baina jendea eta toreatzailea bera, gehiago ikusi eta erakusteko gogoarekin geratu ziren. Iñigo Arrizabalaga eta Aiert Alba "Tormento de Buruzuri" debarrak saiatu ziren jaialdia aurrera ateratzen, zaldi-munta erakustaldiarekin lehena eta kapotea eta banderilekin bigarrena. Alfaroko errekortadoreen jolas eta abileziek ere zur eta lur utzi zuten plazara inguratu zen jende multzoa.

**Mazzantiniren izena**

Mazzantini toreatzaile elgoibartarraren izena ezaguna da hemendik kanpo ere. Marbellan (Malaga) bizi den Sabin Arrieta elgoibartarrak Malagako "Sur" egunkarian agertutako albiste baten berri eman digu eskutitz bidez. Carlinda herrian toreatzaile ospetsuaren omenez bere izena daraman kale bat dagoela azaltzen du albisteak, baina abizena gaizki idatzita omen dago, Mazzantini beharrean, Mazanttini jartzen baitu. Ondoren Mazzantinen biografia txikia gaineratzen du albisteak.

## Jende asko eta giro ederra izan ziren Egunkariaren Aldeko Egunean

Elgoibarko Egunkariaren Aldeko Batzordeak antolatuta, Egunkariaren Aldeko Eguna izan zen joan zen larunbatean, maiatzaren 24an.. Goiza gris eta bustita esnatu zen arren, eguerdi parterako eguraldi oso polita egin zuen. Jendeak ondo harrapatu zuen egun honetako mezua, eta euriak ez zuen inor beldurtu. Egunkari berriaren alde dirua lortzeko, elgoibartarrak kalera atera ziren.

Ekitaldi desberdinak antolatu zituzten. eta denetan bildu zen jendea. Goizeko 12:00etatik eguerdiko 14:00ak arte Plaza Handia jendez gainezka egon zen: Batzuk taloa jaten, Egunkariaren aldeko kamisetak eta akzioak erosten beste batzuk (70 kamiseta eta 11 akzio erosi ziren), eta etxeko txikienak Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatutako tailerretan.

Egerdiko 14:30etan Herri Bazkaria izan zen Ikastolako frontoian. Hasiera batean Madalako parkean egiteko asmoa zegoen, baina eguraldia ilun xamar zegoela-eta, lekuz aldatzea erabaki zuten antolatzaileek. 168 lagun bildu ziren Herri Bazkarian. Sekulako giro polita egon zen, eta bertsolari eta trikitilariek jarri zituzten musika eta kantu doinuak.




Arratsaldean Madalako parkea izan zen herritarren bilgunea. "Arima Beltza" taldeak eman zion hasiera kontzertuari arratsaldeko 20:00etan. Jarraian, "K 104", "Lur Gor" eta "Handik eta Hemendik" taldeen emanaldiak ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek, eta ez ziren gutxi izan. Aipatu beharra dago, bestalde, Madalako parkean jarri zen txosnan jende mordoa ibili zela, eta edari gabe gelditu zirela behin baino gehiagotan. Inguruko tabernen laguntzari esker, txosnara gerturatu ziren guztien egarria asetzeko moduan izan ziren.

## IMHk webgune berria dauka

www.imh.es da IMHko webgunearen helbide berria. Erabiltzaileak modu azkar eta errazean kontsultatu ahal izango du nahi duen guztia euskaraz, gazteleraz edo ingelesez. Fase berri honetarako internet munduan ohikoak diren tresnak erabili dira: Orrialde nagusian informazio guztia ageri da, diseinu argia, en•aza eta estandarra, eta informazioa azkar deskargatzen duen webgunea osatu da.

Orrialde nagusian kurtso berrirako prestatu diren Heziketa Zikloen informazio zabala aurkituko dute ikasleek. Erabiltzaileak kurtso guztien berri jaso dezake webgunearen bitartez, eta interesatzen zaizkion kurtsoetan eman dezake izena. Bestalde, IMHk lantzen dituen proiektu guztiak ere aurki daitezke webgunean.

2003-2004 ikasturterako, Heziketa Zikloetako ikasleek beraien gune propioa izango dute, eta beraien Fondo Dokumentalera sartu ahal izango dira, norberaren tutoreari kontsultak egin edo foro berezietan parte hartzeko.





## Gabriel Krutzelegi izena jarri diote Urruzunoko Babes Ofizialeko etxeak egin dituzten kaleari

Gabriel Krutzelegi Arriola elgoibartarra Barlovento Armadako Generala izan zen, eta 1681. urtean Filipinako Gobernatzaile izendatu zuten. Gabriel Krutzelegi 1689ko apirilaren 27an hil zen, eta Manilako Komentuko Elizan lurperatu zuten, Burgoseko Kristo Santuaren aldarepean.

## Euskal Hezkuntzaren oposaketak IMHn

1994. urtetik Hezkuntza arloan oposaketarik gabe egon ondoren, aurten irakaskuntzan lanpostu finkoa lortzeko oposaketak egingo dira uztailean Euskal Herrian. Azterketak egiteko, Mekanizazioko, Makinen Mantenimenduko eta Proiektuen Garapeneko Tribunalak Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan (IMHn) kokatuko dira. Tribunal hauetako presidenteak bi elgoibartar izango dira: Juan Munin (Mekanizazioa eta Makinen Mantenimendua) eta Santi Sastre (Proiektuen Garapena).

### Liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, Realak puntu bateko aldea ateratzen dio Real Madrili

# IRABAZIKO AL DU REALAK LIGA AURTEN?



**MANUEL JANEIRO**

**35 urte, elektrizista**

Bai, Real Madrilak baino aukera askoz gehiago dituela uste dut, eta momentu honetan, Realak ez dauka areriorik. Aurreko bi Liga garaipenak bizi nituen, baina berriz irabazten badu, izugarri postuko naiz.



**ANE KORTABERRIA**

**8 urte, ikaslea**

Bai, nik uste dot baietz. Azkenerarte itxoin biharko da, baina irabaztiakin nahikua da. Neri Kovacevic gustatzen jata gehixen. Realak irabazten badu, angulak jango ditxut ospatzeko.



**PELLO ERRAZTI**

**8 urte, ikaslea**

Nik nahi dot behintzat Realak irabaztia. Ez dakit noiz izango dan, irabaztiakin nahikua da neretzat. Realak ekipo ona daka. Neri gehixena Nihat gustatzen jata, eta bere gol batekin irabazten badabe hobeto.



**NATI GARITANO**

**56 urte, bankuko langilea**

Ez dakitx, baina gustauko litzaidake Realak irabaztia. Politxena azkeneko jornadan, eta azkeneko momentuan irabaztia izango litzake. Aspaldi irabazi zaban Realak azken ligia, eta seguru jendiak ospatuko dabala.



**ANTONIO PEREZ**

**37 urte, traktorista**

Bai, aurten seguru irabaziko duela. Real Madrilekoak urduri daude, eta ez zaie beldurrik eduki behar. Azken jardunaldian irabaziko du. Tabernan ikusiko dut lagunekin, eta bertan ospatuko dugu.



**MIREN AGIRRE**

**15 urte, ikaslea**

Dudarik gabe, aurtengoan bai. Ni azken jornadan Donostiara jungo naiz Atletico Madriden kontrako partidua ikustera, eta bertan ospatuko dot. Ordurarte dana oso berdinduta egongo da.

**IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ** eta **GAZTELANIAZ.**
**ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!**
**IZENA EMATEAN** ¹loi **OEKO BEHERAPENA**
944edi riay otat~ta tecvalaa 16 latede,te aonetd eta
Medalte4 ~4 tedtd144 Ir needeteameed/

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

## BIDAIATU ETA, AHAL IZANEZ GERO, SEGURU BIDAIATU

Oporrak ate joka datoz, osasun-kontuei begiratu al diezu? Txertoren bat hartzea beharrezkoa al da herrialde horretara joateko? Lasai, oraindik denboraz zaude eta.

Oporrak gozatzeko dira, hala ere, bidaiatzeak baditu arriskuak; horietako bat infekzioren bat harrapatzekoa da: osasun-azpiegitura eskasa, klimaren gorabeherak, elikaduraren aldaketa, lotarako ohituren aldaketa...bidaian estres psikologikoa sor dezaketen eragileak labur esanda, defentsa-sistema ahuldu eta infekzio-prozesuak sortzea errazten dutenak.

Ezaugarriei dagokienez, adina, sexua, gaixotasunen historiala, aurrez hartutako txertoak, osasun-egoera orokorra, alergiak eta medikazioa hartzen dira kontuan. Aurrez egindako bidaietan gertatutako gorabeherak ezagutzea ere garrantzitsua izan daiteke neurri bata edo bestea hartzeko orduan.

Bidaiaren ezaugarrien artean, honako hauek hartzen dira kontuan: bidaia zein herrialdetara egiten den, bidaiaren iraupena, bidaia-mota, ostatu-mota, eta egingo diren ekintzak.

Herrialde batzuetara joateko, legeak txertoa hartzera behartzen du, batez ere Hego Amerika, Afrika eta Asiako hainbat herrialdetara joateko.

**Sukar horia**

Birikoa da, eltxo baten ziztadaren bidez kutsatzen dena. Afrika eta Hego Amerikako oihanetan ematen da. Txertoa hartzeaz gain, eltxoen ziztadak saihesteko neurriak ere gomendatzen dira. Hartuz gero, txertoak 10 urteko iraupena du.

**Tetanoa**

Oxigeno gutxi duten ehunetan bakteria baten ondorioz gara daiteke. Munduko herrialdetako txertatze-programa gehienetan sartuta dago, eta 10 urtetik behin hartzea gomendatzen dute.

**Difteria**

Bakterioa amas bideetan sartzen denean sortu ohi da. Difteriaren aurkako txertoa segurua eta eraginkorra da.

**Poliomielitisa**

Infekzio biriko hau paralisiak eta heriotza eragiteko gai da. Poliomielitisaren aurka bi txerto-mota daude: ahotik hartzekoa, eta ahotik ez hartzekoa (gomendagarriena).

**A hepatitisa**

Gaitza digestio-aparatuan hedatzen da kutsatutako ura edo elikagaiak hartzeagatik.

**B hepatitisa**

Bidaia egin baino hilabete batzuk lehenago hartzea hobe den arren, bada B hepatitisaren aurkako txertoa 2 astetan hartzeko sistema ere.

**Sukar tifoideoa**

Osasun egitura eskasa eta garbitasun ohitura txarrak dituzten herrialdeetan sortzen da. Salmonella typhi bakterioak eragiten du, kutsatutako ur eta elikagaien bidez gorputzean sartuta.

**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**

## Osasun txokuak

### MASAJISTAK

**Victoria Iraegi**
P.M. Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
¡viecnkuntza naturala, F. cle Bacn, rnasala, niakloolutika 'yuga.
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
JbelbUI lel lellIL naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
**i43 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
~an ridntzisku, 2 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**
e, 28 • Tel: **943 74 32 90**
(Th +egunak: 9 00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
**,alea,** 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

# nola ALDATU diren gauzak!

2003-V-30



**1969.** urtekoa dugu erretratu hau. Begira nolakoa zen garai hartan Katanarra Etxe famatuaren sarrera! Benetan dotorea zen. Santa Ana kaleko 6. portalerako sarrera zen hau, eta Muguruza familia bizi zen bertan; herriko familia garrantzitsuenetarikoa. Askok agian ez duzue leku hau ezagutuko; Udaletxe atzeko parkean kokatuta dago. XVI. mendekoa da etxe hau, eta "Etxeandia" izeneko etxean dauka jatorria. Jende askok Antzuolako San Ignazioren etxea bezala ezagutuko du.



**2003.** urteko argazkian gauzak ez direla gehiegi aldatu ikusten dugu. Sarrerako arkua berriro jarri dute Katanarra Etxe famatua gogoratzeko, baina barneko aldea erabat desberdina da. Dagoeneko ez da etxebizitza bat. Taberna eta parke dotoreak eraiki dituzte eta jende ugari ibiltzen da bertan, batez ere, gurasoak beren seme-alabekin. Oso toki lasai da, eta errekara ematen du. Herriko toki dotoreenetarikoa dugu gaur egun.

**Juanito Gorostiza**


/?' BELAXE
ITZULPEN ZERBITZ1JA

**ITZULTZAILEA BEHAR DUGU**

Jarduna: **egun osokoa**
Hizkuntza: **euskara**
Beharrezko baldintza: **esperientzia izatea itzulpengintzan**

Curriculumak bidaltzeko epea:
**ekainak 16**
Curriculumak bidaltzeko helbidea:
**belaxe@arrakis.es**

**Olarte 24B . ARRASATE . 943770498**

KiBaRRen
2003ko maiatzaren 30a/XI. urlea/95. zkia

# Hauteskundeen ostean alderdi politikoek balorazioa egin dute

## MTIk 6 zinegotzi lortu ditu eta EAJk 3



Hauteskundeen aurretik Mendaroko udala EAJko 5 zinegotzik, Batasunako 2k, EAko lek eta MTIko lek osatzen zuten. Bozkaren ostean, aldiz, MTIk 6 zinegotzi lortu ditu eta EAJk 3. Auzolanian herri plataforma ilegalizatua izan zen eta EA berriz, EAJrekiko desadostasunak medio, ez zen aurkeztu.
MTIkoak gustura azaldu dira emaitzarekin, beren hasierako helburua EAJren gehiengo absolutuarekin amaitzea bazen ere, honetaz gain lehengo 118 botuetatik 518 botu jasotzera iritsi baitira. Honen arrazoia "aurreko korporazioarekiko herriaren deskontentuan" topatu behar dela diote "gehiengoaz baliatu baitira proiektuak aurrera ateratzeko". Mendarotarren konfidantza eskertu dute eta Udalean herriaren partehartzea bermatzeko prest agertu dira.
Bestetik, EAJkoek herritarren botuak eskertu eta udalean "beti bezela Mendaroren alde" lanean jarraitzeko asmoa adierazi dute. MTIri zorionak eman nahi dizkiete garaipenagatik eta Auzolanian plataforman "Ramon Alberdiren deklarazioek sortutako haserrearen aurrean" bere esana rektifikatu nahi du publikoki.
Azkenik, Auzolanian herri plataformak, 106 boto jaso ostean, "egoera zelakua zan ikusita, positibotzat" jotzen du emaitza. "Herriaren ahotsa kontuan hartuta MTIren zinegotzi bat guri dagokigu eta udaletxian parte hartzen saiauko gera". Emaitzek herritarrak "PNVren deskalabruekin nazka-nazka inda" daudela argi utzi dutela diote eta gehiengo absolutuen aldekoak ez badira ere "MTIk agindu bezela, Udaletxe partehartzaile eta dinamiko baten aldeko jarrera hartzen badu" han izango direla beraiek ere lanerako prest.

## Berria berri

"Berria berri" proiektu berriaren aurkezpena egin zen joan zen hilaren 23an, ostiralean, Mendaroko Udaletxeko Otaerre aretoan. Egunkariako zenbait langilerekin batera 15 bat herritar bildu ziren eta Mendaron 50 eta 300 euroko akzioak saltzeko asmoa azaldu zuten. Interesdunek indibidualki edo taldeka eros ditzakete akzioak In Leikeren bitartez.

## "Sozio eguna" lagun betikoak zaharren biltokian

Joan den asteazkenean "Sozioen eguna" ospatu zuten Lagun betikoak zaharren biltokian. Eguerdiko 12etan Azpilgoetako elizan meza ospatu zuten zendutako sozioen oroimenez eta, segidan, jokoak izan zituzten herriko frontoian. Eguna borobiltzeko Luzaide jatetxean bazkaria egin zuten.

## Ameikutz Musika Eskolako kontzertua

Gaur gaueko 21:30etan kurtso bukaerako kontzertua eskainiko dute Ameikutz Musika Eskolako kideek Azpilgoeta elizan. Bertan, lau urtetik 30 urte bitarteko 50 bat ikaslek parte hartuko dute eta, koralaz gain, hainbat instrumentuz gozatzeko aukera izango da bertan: soinua, tronpeta, pianoa, txaranga, gitarra, saxoa, txistua, etab.

# Mendaroko TXIRRINDUII

**Aldapan gora eta behera, haizearen kontra edo alde, euripean nahiz bero saparen zigorpean beti aurrera egin behar du txirrindulariak, aurrera, helmugara iritsi arte. Kirol gogorra da, baina Mendaron ere bada izerditan blai asf altozko kilometroei adarra jotzera ausartzen denik. Mendaroko txirrindulari gazteak dira: Beñat Urain eta Ion eta Iñigo Lazkano. Bizikletarik gabe harrapatu ditugun une batean, galdera batzuei erantzuteko eskatu diegu.**



*Iñigo Lazkano ahalegin gogorrean.*




*Ifrigo Lazkano podinnzean.*



*Beñat Urai*

### Noiz hasi zineten txirrindularitzan?

**Iñigo:** 13 urtekin.

**Ion:** Beñat ta bixok Alebinetako lehenengo urtian hasi ginan, oin dala bost bat urte edo, 10 bat urtekin. Nere anaixa ordurako ibiltzen zan ta etxian betidanik eon da afiziva.

**Beñat:** Neri kumunixuan errealau zien bizikletia ta orduan hasi nintzan.

> **"Komunixuan errealau zien bizikletiakin hasi nintzan"**
>
> **Beñat Urain**

### Asko entrenatzen al zarete?

**Iñigo:** Bai, asko. 3 orduko medixa bat ertengo da, km-yan aurten 20.000ra urreauko naizela uste det.

**Ion eta Beñat:** Bai, egunero-egunero 40 minututik ordubetera edo.

### Txirrindularitza serio hartzen duzue ala hobby bat da zuentzat?

**Iñigo:** Txirrindularitza serixo hartzen deten hobby bat da neretzat.

**Ion eta Beñat:** Ez, serixuei ere ez, momentuz behintzat denporia pasatziarren ta kirola itxiarren, gustatzen zakulako praktikatzen dou.

### Txirrindulari izanda parrandarik egin al daiteke?

Iñigo: Ez, generalian deportian zeoze itxia nahi doanak (ta ziklismuan gehixo) tenporada barruan ezin du juergaik in. Bastante zaitzen naiz, aurten gainea txirrindularitzai bakarrik dedikauta nao ta hamen ez dao bromaik.

**Beñat:** Ba berez eztiaz konpatibliak baina nik itxeitxut juergak, gehixegi.

**Ion:** Keba, ezin leike, nik oso juerga gutxi itxeitxut.

### Ametsik ba al duzue txindulari moduan?

Nire ametsa profesionaletara allatzia izango litzake.

**Beñat:** Ez, keba.

**Ion:** Joe, nei gustauko litzaidake segitzia ta ametsik haundi xena profesional izatera allatzia, beti ikasten eon biharrian hau askoz hobeto.

> **"Aurten txii dedikauta n ez dao l**
>
> **Iñigo**

### Denok zarere garaipen dezente lortutakoak.

**Iñigo:** Hasi nintzanetik 5 garaipen lortu ditxut. Aurten bat.

**Beñat:** Nik alebinetan bi garaipen lortu

# IRI GAZTEAK



I IM



*kumatik hasita bigarrena.*



*Zumaian, maiatzan 5ean ateratako argazki bat: ezkerreko lehena Beñat eta laugarrena kn Lazkano*



*Beñat eta Ion*

nitxuan ta infantiletan bat. Geo, oin dala gutxi, Lizarran jokau zan Euskadiko txapelketan bigarren geau nintzan.
**Ion:** Elgoibarren karrera bat irabazi nuan ta Lizarrako txapelketan Euskadiko laugarren geau nintzan, baina gehixenbat puestuak lortu ditxugu asko Beñat eta nere artian.

idularitzai
, ta hamen
imaik"

[ano

**Kirol gogorra da. Esperientzia txarrik eduki al duzue?**
**Iñigo:** Une txarrak urtero pasatzen ditxut nik. Kaidekin eta pintxazuekin hasten zeanian morala jaten juten da ta azkenian gaizki pasatzen da. Gainea, gauzak eztianian zuk nahi dezun bezela ertetzen une latzak pasatzen dia ta malkoren batzuk ere ertetzen dia batzutan.
**Beñat:** Nik bai, lehengo astian, erlojuz kanpoko Gipuzkuako proba itxen ari ginala. Ondo guazen baina petxua gaizki nakan ta azkenian fuera.
**Ion:** Kirol sufridua da oso, ordu asko sartu bihar ta geo...

**Maila altua al dago?**
**Iñigo:** Afi zi onau mailan oso altua dao, edade askotako jendiak parte hartzen deu. Gainea, espainia mailan konpetitzen deu eta karrera batzuetan beste nazio batzutaeko ekipo eta selekziuek ere parte hartzen debe.
